

DEIALDI JARRAITUA.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdian parte hartzeko baldintzak

eremuak arte garaikidean testuingurua sortzeko Eusko Jaurlaritzaren programa irekia da. eremuak-en xede nagusia da artista eta sortzaileei plataforma bat eskaintzea, eztabaida eta topaketarako giroa sortzea, eta errealitate artistiko garaikidearen behatoki izango den lantoki bat gaitzea.

eremuak-ek egiten dituen ekintzek lagundu egiten dute Euskal Herrian arte garaikideari buruzko eztabaida gertatzen den testuinguruak eratzen, optimizatzen edo hobetzen.

eremuak-ek elikatzen dituen sentiberatasun sistemikoa eta izaera irekia direla eta, ulertzekoa da tokiko testuingurua garatzeak testuinguru globaletan sartzea ere badakarrela. Horregatik, eremuak **Euskal Herrian, Euskal Herriari buruz edota Euskal Herrirako egindako proposamenei zabalik dago.**

Zerga-egoitza Europar Batasunean duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek hartu ahal izango dute parte deialdian.

Halaber, deialdian, hainbat pertsona fisikok edo juridikok batera hartu ahal izango dute parte, euren harremana formalizatu behar izan gabe. Halakoetan, pertsona fisiko bat izendatu edo identifikatu beharko dute, proposamenaren ordezkari izan dadin KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA SAREN aurrean (aurrerantzean “Tabakalera”), ondore guztietarako.

Parte hartzeko baldintzak

Batzordeak deialdira aurkeztutako proposamen guztiak aztertu eta sailkatuko ditu, honako

baldintza hauekin bat badatoz, betiere:

1. Aukeratutako proposamenak gauzatzeko baldintzak eta xehetasunak kontratu bidez hitzartuko dira, banan-banan; alegia, ez dute zertan izan proposamen guztientzat baldintza berak, proposamen bakoitzaren ezaugarrien eta premien arabera baizik. Baldintzak zehaztutakoan, atal honen kudeaketa orokorra Tabakalera-ren bitartez egingo da; hura arduratuko da harremanetan jartzeaz, ordainketez, dokumentazio eskariez, egutegia betetzeaz eta koordinazio orokorraz.

2. Hautaketa irizpideak:

Helburu nagusia programa ireki baten bidez **testuinguru garaikideko produkzioa sustatzea** izanik, proposamenak hautatzeko irizpideak Lan Batzordeak finka ditzakeen balizko loturetatik ondorioztatuko dira, obren interesaren eta egokitasunaren arabera, ikerketa ildoan arabera, edo parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak aurkeztutako beste proposamen batzuekiko loturaren arabera.

Aurkeztutako proposamenak izan daitezke obra-ekoizpen proposizional edo esperimentalak (betiere horien aurrekontuak ez baditu 4.000 euro gainditzen), edo hezkuntzaren esparruarekin lotura handiagoa duten ekimenak (argitalpenak, erakusketak, egonaldiak...).

3. Zuzkidura ekonomikoa

Laguntza bakoitzaren zenbatekoa Batzordeak, proposamenean eskatutako zenbatekoan oinarrituta, egindako balorazioaren arabera izango da.

Aurreikusten da zuzkidura ekonomikoa proposamena gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko izango dela, eta proposamena gauzatzeko laguntza horren beharra behar bezala justifikatuko da Justifikazio Memorian. BEZa ordaindu behar duten gastuak zehaztuz gero, BEZa barne jasoko dute laguntza.

Parte-hartzaileen ordainsariengatiko gastuen kontzeptuaren zenbatekoa Batzordeak, proposamenean eskatutako zenbatekoan oinarrituta, egingo duen balorazioaren arabera izango da.

4. Batzordearen erabakiak apelaezinak izango dira. Era berean, Batzordeak eskumena dauka esleipenak biltzeko, zatitzeko edo birbanatzeko, proposamenean interesak, exekuzio aurrekontuak, partaidetza urriak edo beste edozein arrazoi adierazgarriak hala eskatuz gero.
5. Aukeratutako parte-hartzaileei eta/edo ordezkariari Batzordeari elkarrizketa izatea eskatu ahal izango zaie, beharrezkoa irizten bazaio.
6. eremuak programak ez du alde aurreko sailkapenik kontuan hartuko; beraz, ez dago arte garaikidea osatzen duten jardueri buruzko murrizketarik edo lehentasunik. Batzordeari dagokio bere aukeretan gure lurraldeko arte garaikidearen produkzio eta proposamen moldeak islatzea.
7. eremuak-ek parte-hartzaileekin eta/edo ordezkariekin duen konpromiso bakarra Batzordeak hautatutako proposamen bakoitzari esleitutako aurrekontua ematea da, kasu bakoitzean adostutako baldintzen arabera.
8. Proposamenak Batzordearekin adosturiko epeen barruan amaitu beharko dira. **Proiektua garatzeko eta amaitzeko epea gehienez 2 urtekoa** izango da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Bestetik, **hautatutako proiektuak ez dira itxitko harik eta memoria ekonomikoa aurkezten den arte laguntza baliatzeko epearen barruan (gehienez 2 urte) eta ezin izango da beste laguntzarik eskatu beste proiektu baterako, aurreko proiektua itxi gabe.**
9. Oro har, alderdi bakoitzak Espainian indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion zergak jasan beharko ditu. Hala badagokio, emandako laguntzaren zenbatekoaren gainean dagokion atxikipena egingo du Tabakalerak.

10. Jabetza intelektualak

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari guztiek bermatuko dute EREMUAki emandako dokumentazio grafikoa, testuala eta ikus-entzunezkoak originalak izango direla eta ez dituztela hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak urratzen honako kasu hauetan: (i) eskaeraren testuinguruan eta, hala badagokio, (ii) proiektuaren exekuzioan zehar, oinarri hauen xede den laguntzarekin batera. Ondorioz, EREMUAken eta haren hirugarren laguntzaileen aurrean erantzungo dute material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualari buruz egin ditzaketan erreklamazio guztien aurrean.

Oinarri hauek onartzean, parte-hartzaileek eta ordezkariak baimena ematen diote eremuak-i edozein euskarritan erabiltzeko aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa edo proposamenean jasotako beste edozein elementuak, baldin eta laguntza jaso badute, laguntza horiek hedatzeko eta proposamenak exekutatzeko xede bakarrarekin.

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo aipatutako elementuen gaineko egile-eskubide moralei eta jabetza intelektualaren eta industrialaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunari. Azken horiek parte-hartzaileei eta ordezkariari dagozkie aurrerantzean ere.

11. Datu pertsonalen babesa

Parte-hartzaileei eta ordezkariari jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela eremuak-i proposamena aurkezteko unean eta oinarri hauen xede den laguntzarekin hornitutako proiektua gauzatzean emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da proposamena izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea eta laguntza horiekin hornitutako proposamena hedatzea ere.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legalak baldin badago. Halaber, eta 12. baldintzan xedatutakoari jarraikiz, hautatutako parte-hartzaile eta ordezkarien izena eta irudia hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie eremuak-ek oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin hornitutako proposamena gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, nabarmentzen da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, laguntza-eskaera eta deialdiko parte-hartzea ezingo dira kontuan hartu.

Eskatzaileen datu pertsonalak hautagaitza baloratzeko beharrezkoa den denbora-epean zehar gordeko dira, eta, hala badagokio, laguntzen esleipena eta erabilera kudeatzeko. Horrez gain, kontuan hartuko da EREMUAken betebeharrak legalak betetzeko beharrezko kontserbazio-denbora gehigarria.

Edonola ere, eskatzaileei eta onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak atzitzeko eskubidea, datuak zuzendu edo ezabatzeko eskubidea, tratamendua mugatzeko eskubidea, datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubidea eta tratamenduari uko egiteko eskubidea, komunikazioa@eremuak.eus helbide elektronikora zuzendutako idatzizko eskaera baten bidez; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki eskubideen erabilerarekin ados ez egotekotan.

12. Irudi-eskubideak

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatuak izango diren onuradunek baimena ematen diote EREMUAki honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena EREMUAken webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin hornitutako proiektua exekutatzeko. Baimen horrek izaera ezeztagarria du.

13. Diruz lagundutako jarduera martxan dagoen bitartean, parte-hartzaile edo ordezkariak konpromisoa izango dute argi eta garbi adierazteko eremuak-en babesa jaso dutela jarduera horrekin lotuta sortzen dituzten material guztietan, baita egiten duten hedapen-ekintza orotan ere (sare sozialak, webgunea, kartelak...).

Eskakerekin bete beharreko baldintzak

Proposamenak aurkezteko, honako hauek aurkeztu beharko dira, betiere:

- Izena emateko orria, datu guztiak behar bezala beteta.
- Parte-hartzaile guztien NAN, pasaporteak, IFK edo egiaztapen-dokumentua eskaneatuta.

Taldekako parte-hartzearen kasuan, taldeko parte-hartzaile guztiek sinatutako adierazpena atxiki beharko da, ordezkari gisa jardungo duen pertsona fisikoa izendatuko duena.

- Zerga-egoitzaren ziurtagiria, Zerga Administrazio eskudunak emandakoa (egoitza Espainiatik kanpo duten pertsonen kasuan).
- Deialdiko parte-hartzaileen curriculumak.
- Aurkeztutako proposamenaren argumentazioaren txosten labur bat.
- Aurreko produkzioaren erakusgarri diren lanen bost irudi edota aurretiaz egindako lanei buruzko informazio adierazgarria.
- Gastuen eta diru sarreraren aurrekontua (ordainsarien gastuak ere kontuan har daitezke), ahalik xehatuena; eta finantzaketa plana, halakorik behar izanez gero. Proiektua aukeratuz gero, Batzordeak aurrekontua alda dezake egoki iritziz gero, egileen oniritziarekin.
- Eskatuko diren (diru-sarrera horiek jasoko diren edo ez jakinaren gainean egonda ere) edo jaso diren laguntzen gaineko informazioa.

Proposamena aintzat hartzeko ezinbesteko eta nahitaezko dokumentazioa da hori guztia, eta, hala, deialdira aurkezten direnek zorrotz bete beharko dute oinarrietan adierazitakoa.

Ezinbesteko dokumentazioaren ezein alderdi osatzeko, azaltzeko edo zehazteko dokumentazio gehigarria ere aurkez daitezke nahi izanez gero. Dokumentazio hori argibideetarako edo informazio osagarria eskuratzeko lagungarria gerta dakioko Batzordeari, baina Batzordeak ez du informazio hori aztertzeko derrigortasunik izango. PDF dokumentuak, WEB estekak, sareko aurkezpen bideoak, soinu dokumentuak eta abar aurkez daitezke dokumentazio gehigarri modura.

Dokumentazio hori guztia euskarri informatikoan bidali beharko da, eta egiaztatzeko dokumentazioa PDF fitxategi-formatuan, <https://eremuak.eus/web/deialdi-jarraitua/> webguneko online inprimakiaren bidez, zehazki "**BETE ESKAERA**"-n.

eremuak programak harremanetarako helbide bat du (eremuak@eremuak.eus), prozesu honi buruzko galderei erantzuteko.

eremuak-en deialdira aurkezteak baldintza hauek onartzea dakar berekin.